

Marmari leizako aldizkaria

23. zenbakia / 2012ko abendua



-Eskualdeko aldizkariak

-Familia eta hizkuntza

-Hitzokei

-Herrien arteko lankidetzak

-Ba al zenekien?

-eta gehiago...

Hemen duzu Marmari, irudi eta hitzekin jostari



zenbaki honetan:



- 3. or. Aurkezpena
- 4-7. or. Aldizkariak gurean
- 8-9. or. Ba al zenekien?
- 10-13. or. Familia eta euskara
- 14-15. or. Leitza Juan Mari Barriolaren begietan
- 16-17. or. Hitzokei III

18-19. or. Euskaraz bizi!

20-21. or. Letrak atsegin

22-24. or. Herrien arteko lankidetzaz

25. or. Denborapasa

26-27. or. Euskal jolasak Erleta ikastetxean

28. or. Eta zuk, zer diozu?

MARMARIren 23. zenbakia duzu eskuetan. Leitzako aldizkaria da, ongi aski dakizun moduan, eta euskararen inguruko gaiekin batera batez ere gure herriko kontuak jasotzen ditugu bertan. Zenbaki honetan, nolana ere, neurri batean begirada eskualdera zabaltzeko ahalegintxo bat egin dugu, eta pare bat erreportaje inguruko herriei begira osatu ditugu. Herri bakoitzak bere nortasuna, bere ibilbidea eta bere martxa propioa daukan arren, kontu eta alderdi askok ingurukoekin lotzen gaituzte, eta gure historian barrena, eta baita orain ere, ondokoekin harreman ugari izan dugu.

MARMARIren zenbaki honetan, alde batetik, eskualdean sortu diren gurearen antzeko aldizkarien berri emanen dizuegu. MARMARIk bide bat ireki zuen, eta ondoren sortu dira eskualdeko beste batzuk: XAPO Goizuetan, MIAXIRIA Aranon, eta PANPANAZIRI Areson. Horien berri zehatzago aurkituko duzu barruko orrialdeetan.

Eta, bestalde, eskualdean lanean ari diren hainbat mankomunitate, partzuego eta erakunde aipatuko ditugu. Leitza, izan ere, horietako guztietako partaidea da, inguruko beste zenbait herrirekin batera, eta interesgarria iruditu zaigu ondokoekin partekatzen ditugun zerbitzu eta jarduera horiek zein diren deskribatzea.

Bi gai horiez gain, interesgarriak diren bestelako batzuk ere badituzu aldizkarian jasota: "hizkuntza eta familia" erreportajea, esate baterako, euskararen etorkizunerako funtsezkoa baita familian eta etxean euskarari egindako diogun tokia. Seme-alabei euskaraz egitea, jakina, baina hori baino dezentez gehiago da euskarari familian biz-

kor eusteko egin dezakeguna; Leitzari buruzko zenbati galdera egingen dizkizun testa ere baduzu, dakizun hori frogatzeko, edo ez zenekiena ikasteko; zenbait lagunek hautatutako liburu batzuen aipamena ere ekarri dizugu, zer irakurri hautatzeko garaian, nahi izanez gero, horien proposamenetatik abiatzeko; Juan Mari Barriolak Leitzan egindako zenbait argazki ikusiko dituzu erdiko orrialdeetan; eskolan azken aldiandian landu dituzten jolasak...

Horixe duzu zenbaki horretaz aurretiko dizuguna. Honaino iritsi bazara, ez gelditu, pasa orrialdea, eta segi aurrera MARMARI aldizkariako edukietan barrena, izanen baituzu, akaso, zer ikusi eta zer ikasi.





MARMARI, XAPO, MIAXIRIA ETA PANPANOZIRI aldizkariak gurean

MARMARI aldizkaria da eskue-tan duzuna. Leitzako aldizkaria da, eta 10 urtetik gorako ibilbidea egin du dagoeneko gure artean. Marmari baino geroxeago, MARMARI-ren eredia hartuta, Goizuetako XAPO aldizkaria sortu zen, eta horrek ere egin du bere bidetxo, dagoeneko 9 zenbaki argitaratu baitira. Eta azken aldian gure inguru edo eskualde honetako beste bi herriek ere aldizkarigintzako ildo horri ekin diote, eta horietan ere aldizkari bana sortu da: MIAXIRIA

Aranon eta PANPANOZIRI Areson.

Aldizkari hauen ezaugarri nagusiak bi dira: euskarazko aldizkariak dira, beren osoan, eta herriko bertako gaiak lantzen dituzte nagusiki. "Bertako" produktuak dira, bertan eta bertakoen-tzat eginak.

Erreportaje honetan lau aldizkari hauen berri emanen dugu. Badira bestelako aldizkari batzuk ere eskualdean, pestetako egitarauarekin batera datozenak (Plazaola), edo mendialde osoan zabaltzen direnak (Ttipi-Ttapa), baina

oso bestelakoak dira horiek, eta gu aipatutako lau horiez ariko gara. Zaharretetik hasi (MARMARI) eta sortu berria den aldizkariraino (PANPANOZIRI). Eta esanen dugu, bidenabar, aipatzen ari garen aldizkari hauen zenbaki guztiak ikusi nahi izanez gero, horretarako aukera ere badagoela. Leitzako Kultur Taldearen webgunean hain zuzen ere. <http://www.leitzakultura.net> helbidean klikatuz gero, kultur taldearen webgunean sartu eta pdf formatuan aldizkari guztiak eskura ditzakezue.



Eta goazen, besterik gabe, aldizkarien gaineko xehetasun batzuk ikustera.

MARMARI

MARMARI aldizkaria 2000. urtean sortu zen. Garai hartan bazen Leitza Marmari izeneko euskara talde bat, jende gazteak osatua. Talde horrek erabaki zuen Marmari aldizkaria osatzea eta argitaratzea, Leitzako Udal euskara zerbitzuarekin elkarlanean. Beste lan eta ekimen batzuk ere egin zituen Marmari taldeak, baina aldizkaria izan zen, ziur asko, egindako ekarpenik garrantzitsuenak. Bizpahiru urteko ibilbide baten ondoren taldea desagertu egin zen, baina aldizkariak gaur arte jarraitu du, Leitzako Udalaren euskara zerbitzuak kudeatuta.

Aldizkariaren izenari dagokionez, aldizkariak taldearen izen bera hartu zuen. Mikel Olanok osatutako *Aio*, *Leitze* Leitzako hiztegian, honela ematen da “marmari” hitzaren esanahia:

ten da “marmari” hitzaren esanahia:

marmari. «Murmullo de voces. Azk., *marmario*, *marmarita*» (Azp. 67). *Marmari* izena eman diote, hain zuzen, Leitzaldeko Euskara Zerbitzuak 2000. urteko ekainetik argitaratzen duen aldizkariari. Honela dio Joantxeneko Patxiku Alduntzinek: Atera die [etxetik] ta, Tuteneko attun ori, ortxe goiko aritzen azpin marmari beten, otzak pasatue gixaxoa, dena txitx iñe!» (PP). «Osotara belurdurtu ziren marmarian: “hil zitziuk Axintxio. Orain etxen zer esan behar diu?”» (Astaitz 94c). Astaitzek elizako hilobi zaharrak ditu gogoan beste honetan: «Yendeari ez zitzaion

gustatu aurreko zaharrak lurperatzen zituzten leku hauek kentzea eta marmari asko izandu zen» (Astaitz 01a).

☞ *armonie, errenkure.*

Hasierako lau zenbakietan aldizkaria Marmari taldea osatzen zuten lagunek egin zuten. Landu beharreko gaiak adostu, horien inguruan idazteko ardurak banatu, eta horrekin aldizkariaren edukia osatzen zen.

Baina, jakina, erreportajeak, elkarrizketak eta artikuluak idaztea gauza bat da, eta beste kontu bat da horri guztiari itxura erakargarri eta atsegin bat ematea. Aldizkariaren itxura eta irudia lantzeko ardura, hasiera hasieratik, arlo horretan lan egiten zuen norbaiti ematea erabaki genuen. Aldizkariaren diseinua Allende Arnaiz oiar-tzuarrak egin zuen, eta hura bera izan zen lehendabiziko zenbakien maketazioa egin zuena.

Alegia, lantaldeak testuak idazten zituen, baita testuak apaindu eta hornituzko zituzten argazkiak aukeratu

ere, eta material hori guztia maketazioarekin ematen zitzaion. Horrekin guztiarekin, maketazioarekin horrek itxura dotoreko aldizkaria ekartzen zigen. Eta gaur egun ere sistema horri eusten diogu. Gaur egun euskara zerbitzuak lantzen ditu edukiak, eta maketazioa *astidiseinuak* egiten digu. Inprimatzeko lanak, berriz, ANTZA inprimategian egiten ditugu.

Horixe da, beraz, aldizkaria egiteko sistema. Gaiak hautatu eta lantzeko garaian, bi interesgune nagusi izaten ditugu: herria bera, Leitza alegia, eta hizkuntza, euskara gure kasuan. Bi horiek lantzen saiatzen gara, testuen eta irudien bidez.

Sarreraren esan dugun moduan, 2000. urtean abiatu zen MARMARI aldizkaria, eta dagoeneko 11 urte egin ditu. 28 orrialde ditu, eta urteko bi zenbaki argitaratzen ditugunez, oraingo hau 23. zenbakia da. Aldizkaria, hasiera hasieratik, etxe guztietan banatzeko asmoarekin sortu zen, eta halaxe egiten da. Herriko etxe guztietan banatzen da, baserriak barne. Eta doan banatzen da, bidenabar esanda.

Finantzazioari dagokionez, garai batean publizitatetik eta Nafarroako Gobernutik diru-sarrera txikiren bat jasotzen zuen arren, gaur egun ez du inolako laguntzarik jasotzen. Aldizkaria, % 100ean, Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateak ordaintzen du. Mankomunitatearen barruan Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Udalek osatzen eta ordaintzen duten eskualdeko planetik ordaintzen da aldizkariaren gastu osoa.

23 aldizkari hauetan hainbat kontu jaso dugu: herritarrekin egindako elkarrizketak, gogoetak, informazioa, erreportajeak, denbora-pasak, inkestak, testak, bitxikeriak, argazki bildumak... Ezin dugu dena hemen aipatu, baina, lehenago esandako moduan, aldizkari guztiak Interneten kontsulta ditzakezu, hala nahi izanez gero.

XAPO

XAPO Goizuetako aldizkaria duzu. 2002ko martxoan argitaratu zen lehen-dabiziko zenbakia, eta, urtean behingo maiztasunarekin, dagoeneko 9 zenbaki banatu dira herrian. MARMARIk bezala, 28 orrialde ditu.

XAPO aldizkaria Goizuetako Kultur Taldeak eta eskualdeko euskara zerbitzuak sortu zuten, eta gaur egun ere bien artean landu eta osatzen dute, elkarlanean. Urtean behin argitaratzen da, eta garaia iristen denean, denon artean gaiak adostu, eta dagozkion idazlanak osatzeko ardurak banatzen dira.

Aldizkariaren izenak, bistan denez, ez du azalpen handirik behar. Zapo, edo apo, esaten zaie goizuetarrei, eta hori bera hautatu zuen lantaldeak aldizkariari izena jartzeko. Aldizkaria bera bezala, izena ere oso "bertakoa".

Normalean, eskualdeko gainerako aldizkarietan bezala, herriko gaiak lantzen ditugu, eta baita euskara bera ere. 9 zenbaki argitaratu direnez, hainbat gai aipatzeko eta azaltzeko parada izan dugu: herritarren bidaiak, garai bateko pasadizoak, herriko talde edo elkarten lana, Goizuetako euskararen ezaugarri bereziak, hemeroteka, kultur ekintzen eta bestelako ekitaldien kronikak...

Aldizkaria, eskualdeko gainerakoak bezala, Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateak ordaintzen du, oso-osorik. Gaur egun ez du Nafarroako Gobernutik inolako diru-laguntzarik jasotzen.

MARMARI aldizkarian bezala, diseinua Allende Arnaizena da eta maketazioa *astidiseinuak* egiten du. Guk edukia landuta eman, eta hark aldizkariz "jantzita" itzultzen digu. Ondoren, ANTZAra eraman eta prest daukagu aldizkaria etxe eta baserri guztietan banatzeko.



MIAXIRIA

Eskualdean sortutako hirugarrenaldizkariaduzu MIAXIRIA, Aranoko aldizkaria hain zuzen ere. Aranoarra ez denak Miaxiria hitza, ziur asko, ez du ezagutuko. Saski mota jakin bati bertan ematen zaion izena da miaxiria, eta horixe bera hautatu zuten aranoarrek aldizkaria izendatzeko. Aldizkariaren mantxeta bera, irudietan ikus dezakezunez, miaxiri batean oinarrituta osatu zen.

Izenaren aukeraketa, ordea, berezia izan zen Aranon. Herriarrei proposamenak bidaltzeko eskatu zitzairen, eta baita ederki erantzun ere. Aldizkariari izena jartzeko jasotako proposamen guztien artean MIAXIRIA hautatu zen.

MIAXIRIA aldizkariaren lehendabiziko zenbakia —oraingoz bakarra— 2010. urtean argitaratu zen. Euskara zerbitzuak egindako deialdiari erantzunez herrian taldetxo bat osatu zen, eta saiakera egiteko erabakia hartu zuen. Saiakera diogu, izan ere, hasieran ez baitzen garbi ikusten Arano bezalako herri txiki batek aldizkaria osatzeko adina gai eta material emanen ote zuen. Laster ikusi zen, ordea, aldizkaria osatzeko adina bazegoela, baita aurrerago zenbaki gehiago ateratzeko ere.

Esan bezala, zenbaki bat argitaratu da, eta bi urtean behin argitaratzen jarraitzeko asmoa du lantaldeak. Zenbait herritarrek eta euskara zerbitzuak osatu zuten lantaldea, eta elkarlanean sortu genuen aldizkaria. XAPO eta PANPANOZIRI aldizkariaren kasuan bezala, denon artean gaiak adostu, ardurak banatu, eta lanera!

Lehendabiziko zenbakian jorratutako gaiak hauexek dituzu: Arano historiaurrean, ibilbideak, bertsoak, Aranoko irudiak, garai bateko jostailuak, herritarren gogoetak, herriko haurren marrazkiak, herrira bizitzera etorrira-



koen gogoetak, heritik kanpora joandako aranoarrak, Aranoko sendabellarak, errezetak, Aranoko hitzak eta esamoldeak, eta denbora-pasak.

Beste zenbait alderdiri dagokionez, MIAXIRIA aldizkariak eskualdeko gainerakoen ezaugarriak ditu. 28 orrialde ditu, aldizkariaren diseinua eta maketazioa *astidiseinuak* egin ditu, eta ANTZA inprimategian inprimatu da. Banaketa ere, ohi bezala, etxe etxe eta baserriz baserri egiten da.

PANPANOZIRI

PANPANOZIRI duzu gure eskualdean "jaiotako" azkeneko aldizkaria. 2011ko abenduan argitaratu da, eta 28 orrialdeko lehendabiziko zenbaki hau herriko etxe eta baserri guztietan banatu da.

Izena, Aranoko aldizkariaren kasuan bezala, akaso berezi samarra gertatuko zaio bertakoa ez denari. Panpanoziria, aldizkariaren mantxetan ikus dezakezuen moduan, banabar-landareari eusten dion ziriarekin lotuta dago. Hortik sortu da ideia, hain zuzen ere, eta, Aranon bezala, irudi hori bera erabili da aldizkariaren diseinua egin eta irudia finkatzeko.

Eta Aranon bezala, izena hautatzeko bidea herritarrei egindako deialdi bat izan zen. Proposamenak egiteko eskatu zitzairen aresoarrei, eta 28 izen proposatu zitzaizkien. Guztiak ere aldizkariaren bertan ikus daitezke. Eta horien artean PANPANOZIRI hautatu zuen lantaldeak.

Aldizkaria Aresoko zenbait herritarrek eta eskualdeko udalretako euskara zerbitzuak osatu dute. Aranon bezala, bi urtetik behin argitaratzeko asmoa dauka lantaldeak. Ikusi dugu, hemen ere, herriak baduela nahikoa aberastasun eta nahikoa gai maiztasun jakin batekin aldizkariak argitaratzen jarraitzeko. Lehendabiziko

zenbakian landutako gaiak hauek dira: Aresoko hainbat jakingarri, Aresoko euskara, Gabriel Celaya eta Areso, garai bateko Aresoko argazkiak, historia, Aresoko irudiak, Aresoko toki-izenak, Casilda Irazustari elkarrizketa, Areso Interneten, aldizkarirako izen-proposamenak, eta denbora-pasak.

AURRERA BEGIRA

Honaino eskualdeko lau aldizkarien aurkezpena. Denak martxan ditugu, batzuk aspaldi hasiak eta beste batzuk jaiotakoak, baina denak ere aurrera egiteko gogotsu, gure herriei eta herritarrei nolabaiteko ekarpena egiten dietelakoan. Bertako gaien inguruan irakurtzeko eta bertako hainbat kontu ikasteko bidea erraztu nahi dugu, baita entretenitzeko bidea ere, eta, jakina, hori guztia euskaraz.

Pentsa litekeen moduan, jakin badakigu aldizkari hauek hobetu daitezkeela, eta horretan lagunduko diguten ekarpenak, iritziak, kritikak eta ideiak pozik jasoko ditugu. Halakorik izanez gero, laga@iparmank.org helbidera bidal ditzakezu, edo, nahi izanez gero, euskara zerbitzuari edo lantaldeetako edonori zuzenean jakinarazi.

Ba al zenekien?

Leitzan bizi bazara, eta akaso bertan bizi ez bazara ere, herriari buruzko gauza asko jakinen dituzu. Baina denok ez ditugu arreta-gune edo interesgune berberak izaten. Batek herriko baserri eta borda guztien izenak jakinen ditu, baina ez du jakinen inauteriak nork antolatzen dituen.

Beste batek, berriz, Aurrerako futbol taldearen historia osoa kontatuko dizu, baina egian ez du jakinen Leitzako Udala UEMAKo partaide dela.

Normala da hori, eta “espezializazio” hori ez da batera harrigarria. Hala ere, gure errealitate hurbila hobeki ezagutzea eta bizi garen herriaz zer edo zer gehiago ikastea interesgarria dela iruditzen zaigu, eta horretan laguntzeko sortu dugu honako galdetegia, entretenitzeaz gainera ikasteko ere balioko duela-koan.

1.- Zenbat zinegotzik osatzen dute Leitzako Udalbatza?

- a) 7
- b) 9
- c) 11



2.- Leitzako Udalak, eskualdeko beste hainbat herrirekin batera, zenbait erakundetan parte hartzen du. Zeinetan?

- a) Plazaola Turismo Partzuergoa, Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, Mendialdea Mankomunitatea, Aralar Musika Eskola, Cederna-Garalur, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA), eta Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea
- b) Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, Mendialdea Mankomunitatea, Aralar Musika Eskola, Cederna-Garalur, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA), eta Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea
- c) Plazaola Turismo Partzuergoa, Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, Mendialdea Mankomunitatea, Aralar Musika Eskola, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA), eta Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea

3.- Nafarroa historikoki merindadetan banatuta zegoen. Leitza zein merindadetan zegoen kokatua?

- a) Iruñekoan
- b) Zangotzakokan
- c) Lekunberrikoan

4.- Zenbat biztanle zituen Leitzak, datu ofizialen ariora, 2010. urtean?

- a) 2.456
- b) 2.701
- c) 2.934

5.- Zenbat kilometro karratuko azalera dauka Leitzak?

- a) 133 km²
- b) 87 km²
- c) 58 km²

6.- Zein altueran dago Leitzako Plazaolako estazioa?

- a) 397 metroko altueran
- b) 497 metroko altueran
- c) 597 metroko altueran

7.- Zenbat kilometro daude Leitzatik Iruñera?

- a) 48 km
- b) 58 km
- c) 68 km



8.- Zein herrirekin egiten du muga Leitzak?

- a) Areso, Berastegi, Beruete, Goizueta eta Uitz
- b) Areso, Berastegi, Beruete, Ezkurr, Goizueta eta Uitz
- c) Areso, Berastegi, Beruete, Ezkurr, Goizueta, Gorriti, eta Uitz

9.- Zein da Leitzako mendirik altuena?

- a) Urepel
- b) Kornieta
- c) Eguzkizko Muinoa

10.- Leitzan gizakiak utzitako aztarna materialik zaharrenak noizkoak dira?

- a) Duela 10.000 urte ingurukoak
- b) Duela 4.000 urte ingurukoak
- c) Duela 1.500 urte ingurukoak



11.- Leitzaren inguruko idatzizko aipamenik zaharrena noizkoa da?

- a) Erromatarren garaikoa, 150. urte ingurukoa
- b) Iruñeko erresuma sortu zen garaikoa, IX. mende ingurukoa
- c) Antso Nagusiaren garaikoa (1004-1035)

12.- Zein urtean banatu ziren Leitza eta Aresoko Udalak?

- a) 1227an
- b) 1770ean
- c) 1921ean

13.- Bilboko jaun Lope Diaz de Harok Bilbokoaren antzekoa den armarrria eman zion Leitzari. Gurean otso bakarrekoa da. Zergatik eman zion armarrri hura?

- a) Leitzarrak oso jatorrak zirelako
- b) Leitzarrek Bilboko muga defendatzen lagundu ziotelako
- c) Baezako guduan haren alde borroka egin zutelako



14.- Noiz arte ibili zen Plazaola trenra Leitzan barrena?

- a) 1913. urtera arte
- b) 1933. urtera arte
- c) 1953. urtera arte



15.- Nola deitzen zitzaizen Leitzan ihoteei garai batean?

- a) Aratustek
- b) Atsaurealdie
- c) Pesta ttikik

16.- Noiz egin zen Leitzako kultur astearen lehendabiziko edizioa?

- a) 1978. urtean
- b) 1983. urtean
- c) 1990. urtean

17.- Iruñea eta Donostia lotzen zituen Plazaolako trenbideak zenbat kilometro ditu?

- a) 66
- b) 71
- c) 85

18.- Zein da Leitzako eskolaren izena?

- a) Erleta
- b) Amazabal
- c) Manuel Lasarte

19.- Zein da Leitzako institutuaren izena?

- a) Erleta
- b) Amazabal
- c) Manuel Lasarte

20.- Zein da Leitzako kultur taldearen izena?

- a) Leitzako Kultur Taldea
- a) Altzadi Leitzako Kultur Taldea
- a) Atakabeltz Leitzako Kultur Taldea

21.- Noiz sortu zen Leitzako Atakabeltz gaztetxea?

- a) 2000. urtean
- b) 2005. urtean
- c) 2008. urtean

22.- Zein da Leitzako sektore ekonomiko nagusia?

- a) Zerbitzuak
- b) Industria
- c) Eraikuntza

23.- Zein d(ir)a Leitzako industrialdea(k)?

- a) Landa
- b) Landa eta Iñurritzta
- c) Landa, Iñurritzta eta Elutseder

Erantzun zuzenak:
1.- c; 2.- a; 3.- a; 4.- c;
5.- c; 6.- b; 7.- a; 8.- b; 9.- c;
10.- b; 11.- c; 12.- b; 13.- c;
14.- c; 15.- c; 16.- a; 17.- c;
18.- a; 19.- b; 20.- b; 21.- b;
22.- a; 23.- b



Familia

eta euskara

Artikulu hau irakurtzen ari denak badaki, ziur asko, euskara indar-berritzeko eta berreskuratzeko ahalegin handia egin dela eta egiten ari dela Euskal Herrian. Baita Leitzan ere. Eta horretarako, eguneroko bizitzako espazio guztietan bilatu nahi diogu euskarari tokia: administrazioa, eskola, dendak, elkarteak...

Horietaz gain, badago euskararentzat oso garrantzitsua den espazio bat: familia. Familia-eredua edozein dela ere, jakina.

Familia izan da, hain zuzen ere, historian zehar hizkuntzari hobekien eutsi diona. Beste hainbat tokitan euskararen arrastorik sumatzen ez zen garaian, askotan familiak eutsi zion

gure hizkuntzari. Mila aldiz esana da, eta ez da gezurra. Eta honako hau ere ez da gezurra: familiaren bitartez (ere) transmititzen ez den hizkuntzak, ez dauka etorkizun garbirik.

Beno, orain arte esandakoa ez da notizia.

Gurean, Euskal Herrian eta Leitzan zehazki, badirudi belaunaldien arteko

transmisioa ongi samar betetzen dela gaur egun. Alegia, guraso euskaldunek seme-alabei euskaraz egiten diete oro har. Horrek baditu salbuespenak, inguru batzuetan eta euskaraz hain ongi moldatzen ez diren euskaldunen kasuan batez ere.

Leitzan, oso oker ez bagaude behintzat, ia-ia salbuespenik gabe umeei euskaraz egiten diete gurasoek eta gainerako senideek.

Familiako hizkuntza euskara izatea, ordea, beste gauza bat da. Edo, bestela esanda, umeari euskaraz egitea baino gehiago da. Ez baita batere arraroa haurrari euskaraz egitea baina gurasoen arteko hizkuntza gaztelania izatea. Egunero-egunero ikus dezakegu hori gurean, Leitzako etxeetan eta kaleetan.

ZER IKUSI, HURA IKASI

Umeak, askotan esaten den moduan, oso bizkorak dira. Eta sarritan uste duguna baino askoz ere hobeki ohartzen dira gauzez. Baita ondorioak atera ere. Zer pentsatuko du ume batek, konparaziora, bere gurasoek euskaraz egiten badiote baina haien artean erdaraz ari baldin badira? Erantzuna erraza da: euskara umearekin egiteko hizkuntza da, baina helduen artekoa gaztelania da. Izan ere, praktikan behintzat, askotan hala da.

Nahita ez akaso, baina nahigabe bada ere horixe transmititzen zaio umeari, eta umeak mezua ederki jasoko du. Horrek ondoriorik ote du? Bai, gure ustez, nahiz eta ez izan beti tamaina berekoak. Horrek ez du zuzenean ekarriko umeak erdaraz egiten hastea, euskaraz aritzen dira gehienak hemen. Baina umeak hizkuntzen inguruan duen



balorazioan eraginen du, eta momentuan ez bada, aurrerago izan dezake eragina, eta baliteke aurrerago, umeak gaztelaniaz hobeki ikasten duenean esaterako, erdaraz egiteko bultzada bat izatea.

Garbi samar ikusi dugu azken urteotan telebistatik euskarazko marrazki bizidunak desagertu diren garaian umeek errazago jotzen zutela gaztelaniara jostatzeko garaian. Guraso askoren arteko komentarioa izan da.

Bada, marrazki bizidunek horrelako eragina izan badezakete, pentsatzekoa da etxean entzuten den hizkuntzak, umeak gurasoei eta gurasoen lagunei entzuten dien hizkuntzak ere eragina izanen duela.

Horregatik guztiagatik esan dugu familiako hizkuntza ez dela soilik umearekin erabiltzen dena. Familiako hizkuntza gurasoen eta senideen arteko hizkuntza da, edota etxean telebistan, irratian, liburuetan, ipuinetan, aldizkarietan... erabiltzen duguna ere.

ETXEAN HITZ EGITEKO GAIA

Familiaren baitan, gurasoen artan bereziki, gauza askotaz hitz egiten da, edo

ustez hala komeni da behintzat: elikadura; osasuna; umeei transmititu behar dizkiegun balioak; nolako heziketa eman nahi zaien; eskola; erlijio eta sinesmenen aurrean dugun jarrera...

Gure ustez, horrekin batera badago hitz egiteko eta gogoeta egiteko moduko gai bat: HIZKUNTZA. Gure umeak euskaldunak izan daitezten nahi dugun; nolako euskara transmititu nahi diegun; nolako hiztunak izatea nahiko genukeen; euskararen inguruan zer jarrera edo balio transmititu nahiko geniekeen; guk zer egin dezakegun horretarako...

Gainerako gai guztiekin bezala, garbi dago ez dagoela dena gure esku, eta gu alde batetik saiatuta ere, badaude eragin handia duten bestelako faktore batzuk. Baina garbi ere dago guk ere egin eta eragin dezakegula, eta oso lagungarria izan liteke horretaz gogoeta egitea eta esplizituki hitz egitea. Hitz egitea, eta baita erabaki batzuk hartzea ere.

ZER EGIN?


Hasteko, gure ustez, lehen aipatu dugun ideia gogoan izan: ZER IKUSI, HURA IKASI. Euskararen inguruko gure jarre-



ra, eta batez ere gure praktika eta jokabidea, haurrentzat eredu izanen da. Gure jarrerak, eta gure arteko erabilek eta praktikak eragina izanen du umeak euskararen inguruan izanen duen jarreran eta praktikan.

Garrantzitsuena, beraz, euskara erabiltzea izan liteke. Nolanahi ere, egorak eta abiapuntuak oso ezberdinak izan litezke, eta baita egin litezkeen urratsak edo har litezkeen erabakiak ere. Esate baterako, honakoak:

- Haurri euskaraz hitz egin: hori, lehen ere esan dugu, ia-ia salbuespenik gabe egiten da Leitzan.
- Gurasoen eta senitarteko kide helduen artean euskaraz egin: hor errealitatea oso ezberdina da. Oso arrunta da gurasoen artean erdaraz egiteko ohitura edo joera. Ohitura edo joera hori, jakina, beste guztiak bezala, alda daiteke, eta denok ezagutzen ditugu horren adibideak, urrutira joan gabe. Ohitura horiek errazago aldatzen dira horren gainean hitz egin eta erabaki kontzientea eta esplizitua hartzen baldin bada. Erabakirik ezean, zaila-



goa izaten da bere kasa gauza horiek aldatzea.

- Umeei euskaraz egin, kantatu, ipuinak irakurri: horrek ere euskararen balorazioa eta erabilera indartuko du, eta, gainera, horretan euskaraz ongi ez dakitenek ere parte har dezakete.
- Euskararen inguruko balioak azaldu eta erakutsi: guk denok badugu eus-

kararen inguruko balorazio eta jarrera bat, era batekoa edo bestekoa. Jarrera hori, segur aski, nahi gabe eta inkontzienteki transmititzen diogu umeari. Baina horretaz gain, gaia guretzat garrantzitsua baldin bada behintzat, jarrera hori eta balio horiek hitzez azaltzen ere saia gaitezke, beste gai batzuekin saiatzaren garen bezalaxe.

- Euskarazko baliabideak: egia da merkatuan gaztelaniatzko produktu gehiago dagoela euskarazko produktuak baino, baina euskarazkoak ere egon badaude, eta merezi du ahalegintxo bat egitea hor barna dauden euskarazko DVD, CD, liburu, ipuin eta bestelako baliabideak bilatzeko.

FAMILIA PROGRAMA

Artikuluaren hasieran adierazi dugun moduan, familian erabiltzen den hizkuntza oso garrantzitsua da euskararen etorkizunarentzat. Eta horregatik saiatu da, esate baterako, eskualdeko eus-



kara zerbitzua gai hori lantzen.

Familia oso eremu pribatua da, ordea, eta esku hartzea zaila da. Eta ezin da, noski, horren inguruko araurik eman. Ezin zaio inori agindu bere etxe barruko hizkuntza zein izan behar den, eta ez dugu uste inork horretarako gogorik izanen duenik.

Egin litekeena, gehienbat, gai honen inguruko mezu jakin bat hedatzea da, gogoeta eginaraztea, aholku batzuk ematea, eta baita baliabide batzuk aurkeztea ere.

Ildo horretan kokatzen da familia programa deitzen duguna, eta horren atal bat da Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko etxeetara egiten dugun material bidalketa. Gure mezuak eta proposamenak zabaltzeko bidea da, familian ere euskara erabiltzeak gure ustez duen garrantzia azpimarratzeko eta horren inguruan kontzientziatzeko. Etxeetara

iristeko modu bat da, eta zehazki hone-la gauzatzen da:

Jaio berriak. Eskualdean haur bat jaiotzen denean, haren gurasoei gutun-azal bat bidaltzen zaie. Gutun-azalean lerd-zapi bat, autorako eranskailua edo pegatina, *Egizu lo* izeneko kanta-bilduma CDan, eta *Duzun onena* izeneko liburuxka aurkituko ditu. Liburuxka horretan, "familia eta hizkuntza" gaiaren inguruko hainbat ideia, gogoeta, aholku, proposamen eta baliabide jasoko ditu.

Urte eta erdiko haurrak. Haurrak urte eta erdi bete duenean, beste gutun-azal bat iritsiko zaio. Oraingoan *Pun-*

palaplan izeneko CDa eta DVDa iritsiko zaizkio. Bertan hainbat kantu eta jolas daude, argibideak barne. Horrekin batera, *Jolastuko gara?* titulua duen liburuxka jasoko du. Jaio berriei bidalitakoak bezala, liburuxka horrek ere hainbat gogoeta, ideia, gomendio eta baliabide jasotzen ditu.

Hiru urteko haurrak. Zikloa bukatzeko, hiru urteko haurrei ere bidalketa bat egiten zaie. Oraingoan *Txikia izanik* CDa jasoko dute —hainbat kanta daude bertan—, eta baita liburuxka bat ere, *Bakoitzari berea*, txikiagoei bidali zaienaren antzekoa, baina haien adinera eta beharretara egokituia.

Horraino gure aholkuak, gomendioak edo proposamenak. Erabakiak eta urratsak, berriz, norberaren esku. Euskara estimatu eta baloratzen dugula nabarmena da, ez dago esan beharrik; ea balorazio eta estimu horrek bizitzako esparru guztietan, baita familia barruan ere, euskara noiznahi eta nonahi erabiltzera eramaten gaituen.

Leitza

Juan Mari Barriolaren begietan

Leitzari begiratzen diozunean, zer ikusten duzu zuk? Jendea, mendiak, etxeak, kaleak, istorioak, iragana, etorkizuna... Atal honetan, leitzarren begiek Leitza nola ikusten duten agertzen da, argazkien bidez. Oraingoan Juan Mari Barriolari eman diogu aukera, Leitza nola ikusten duen erakusteko.



Elurra



Hauxe da, ziur asko,
Leitzako haritzik
handiena



Plazaola ibilbidea,
Erasoten



Ixxibar, udazkenean



Idi parea



Iberoko ola
zaharreko tximinia



Naturaren
formak



Ezpatadantza,
pestetan



Leitzako plazara
sartzen

HITZOKEI III

Rastafaria: kafea, kopa eta kanutoa

Olentzeria: ikazkinen kulero eta bularretakoak

Saiatu al zara inoiz hitzekin jostatzeko? Bertsolariak trebeak dira horretan, baina ez da hori euskararekin jostatzeko modu bakarra, badira bestelako aukera batzuk ere. Hitzak "asmatzea", esate baterako. Eta guri ariketa interesgarria, entretenigarria eta dibertigarria iruditzen zaigu, euskararen erabilera sustatzeko modurik onenetakoa gainera. Izan ere, hizkuntza gehiago estimatuko dugu atsegina eragiten baldin badigu.

Horrexegatik egin nahi izaten diogu aldizkari honetan tokitxo bat HITZOKEI bezalako ideia bati. Lehendik ere ekarri dugu atal hori MARMARIra, eta 23. zenbaki honetan ere tokia egin diogu. HITZOKEI Interneteko gune bat da, eta hainbat lagunek sortutako edo asmatutako hitzak jasotzen dira bertan. Umorea eta sormena elkartuz osatutako hitzak dira, denon gozagarri. Guk horien arteko hautaketa bat egin dugu, zuen eskura jartzeko, baina webgunean bertan 1.500 hitzetik gora daukazue bilduta. Hara ere jo dezakezue, nahi izanez gero (<http://hitzokei.tximinia.net/>).

Hitzek, ikusiko duzuen moduan, badute zentzu jakin bat. Eta batzuetan, lehendabiziko irakurketan, ihes egiten digu agian. Horrelakoetan berriz irakurri, eta pentsatu, eta ohartuko zara proposamen bakoitzaren atzean dagoen ideiaz edo ideiez. Eta, animatzen baldin bazara, zerorrek ere egin dezakezu antzekoak sortzeko ahalegina.

Goazen bada, zuentzat egin dugun hautaketa ikustera. Hitzak eta definitzioak hitzez hitz jaso ditugu, sareko Hitzokei gunera iritsi diren moduan.

Ahulki: makalendako jarlekua.

Alelhugar: esanahi bat topatutakoan bota ohi den zorioneko oihua.

Alkoholaritza: mozkor-mozkor eginda zaudenean ondokoari kontseju txarrak ematea.

Amasay: nerabe parrandazalea.

Armiarman: Spidermanen lehengusu eta superheroi euskalduna.

Arraunlarri: txaluparen kulunkarekin zorabiatu den erremularia.

Atez ateoak: Jehovaren Lekukoen gisa, fede gabeziaren berri ona etxerik etxe zabaltzen dutenak.



Auzitegi gorrena: inori entzun barik, bere airera dabilen Espainiako auzitegia.

Berohala(хe): isurketa goiztiarra.

Bizhitsa: bizimodu petrala edo zorigaitzokoa bizi duenak nozitzen duen zigorra. Bizitzaren eta hitsaren -tristearen- konbinazioa.

e-narkia: Internauten agintean oinarritzen den sistema politikoa.

Errumania: beren burua etengabe errunduntzat dutenen herrialdea.

Eskalizuna: proposamen desohoregarria.

Euripear: Europako zona hezeetako biztanlea.

Fukutxima: ile erradiaktiboa duen pertsona.

Gaitasuna: halako haize instrumentu bat jotzeko ahalmena.

Garizumua: zereal esnea bakarrik irentsi daitekeen epealdia.

Gayjartzaila: bertso-saiotan homosexualak bero-bero jartzen dituen aurkezlea.

Haut-etsia: bere programa politikoa aplikatzeko ahaleginean amore eman duen zinegotzia.

Hegoismo: Iparraldekoiei popatik eman diezaietela (via Asisko).

Hippoytu: tximaluze lorezaleei paliza eman.

Hitsaldi: berbaldi goibel eta etsigarria.

Hitzela: hitz joko bikainak egin direla esateko espresio enfatikoa.

Hitzusi: berba zatar, itxuragabea.

Ilargripean: udako gau freskoetan gaitzetzeko egoera aproposa.

In-out-eriak: barrutik edota kanpotik gozatzeko moduko festa.

Inbidia: ibilbide bikaina duenak erantzuten diena, arrakasta hori irentsi ezinik daudenei.

Irrintzi: iritzi seguru eta ozena.

Izkutatua: zuk bakarrik ikusi duzun tatuajea maitia...

Jai Fidelity: festa bat-bera ere galtzen ez duen hori.

Jerché: Guevararen sudadera.

Kisskali: muxu bero-bero-beroek.

Hokatu: drogaren bitartez leku batean jarri.

Holokatu: lanpostu malgua lortu.

Hupelatiba: sagardogileen lankidegoa.



Lepoker

Lehialketa: lagunik on eta zintzoena nor den hautatzeko borroka.

Lepoker: ondokoari kartak ikusi nahian, tortikolisak jota dagoen poker jokalaria.

Ligandea: futbolerok asteen zehar akumulatutako estresa oihuka askatzeko egutegian gorritz ageri den eguna.

Marradona: futbol zelaietako marrak ere esnifatuko lituzkeen jokalaria mediatiko bezain polemikoa.

Men-debalde: Bizkaia aldeko doako gizonen zerbitzua.

Meta: txirringularen egiten duten mordoiloa helmugaren ondoan jausten direnean.

Mintegia: sado-masokisten bilera.

Muki zapiens: klinexa erabiltzen hasi zen lehen primatea.

Multitarea: gizonetako informatikari baten ezintasuna bi prozesu aldi berean abiarazteko.

Night gabe: konturatu gabe gaupasa egin, tabernatik ateratzerako argitzen duenean.

Olentxiro: opariak erosteko dirurik ez duen ikazkina.

Olentzarro: gabonetako bere lana estimu handiz hartzen duen ikazkina.

Olentzeiro: Gabonetako ikazkin gali-ziarra.

Olentzeria: ikazkinen kulero eta bularrak.

Olentzeros: sex-shop batean erosita-ko opari pikantea.

Olentzeroski: opariak merkatal-gune handietan erosten duen ikazkin errusiarra.

Omentzero: existitzen omen den ikazkin opari-ekarlea.

Oraingutan: gizon guztietan dagoen primatea agertzen den ueña.

Pagatu: pagotan ordaindu.

Pastafari: espagetiak jamaikar erara.

Petalo: txirri somniferoa.

Pilotarria: harrizko pilotekin jokatzen duen kirolaria.

Potokiak: bertsotan oso txarrak diren izaki txiki urdinak.

Rastafaria: kafea, kopa eta kanutoa.

Rebeka: bekari eternoa.

Sor Elizabete: Elizaren kaptazio taldeko buru den moja.

Sorbaldia: Ikeako erosketak bizkarrean etxeraino eramaten dizkizun moja.

Tripi-poteo: erromeria lisergikoa.

Txakoli: katalanek ospakizunetan erabiltzen duten edaria. TXAnpions, KOPA, Liga.

Txalopa: arraunean barik, esku-zartaka mugiarazten den untzi txikia.

Txapelketa: edozein reality show.

Txistena: txosten batzuen benetako izaera.

Zihurtatua: erabat konbentzitutakoan soilik egingo zenukeen tatuajea.



Armiarman



Euskaraz bizi!

EUSKARAZKO PRODUKTUEN KONTSUMOA

Euskaraz bizi garen herria gara, neurri batean behintzat, eta gure eguneroko bizitzako zati handi bat euskaraz egiten dugu. Beste zati handi bat, ordea, gaztelaniaz, ezinbestean. Eta hor sartzen da, askotan, kultur produktuen kontsumoa eta aisialdia. Eman ditzagun adibide batzuk:

Telebista: euskarazko pare bat kanal ditugu, oraingoz behinik behin (ETB1 eta ETB3), eta hamarnaka erdarazko. Herritarrak telebistaren aurrean batez beste 3-4 ordu pasatzen dituenek, bistakoa da telebistaren eragin linguistikoa oso-oso handia dela. Gure umeez, esan beharrik ez dago, hainbat ordu pasatzen dituzte erdarazko marrazki bizidunak ikusten (Bob Esponja, Gormiti...), eta kalean belarria horretara jartzea besterik ez dago horren aztarna sumatzeko.

Zinea: Leitzan, ikasturtean zehar, 5-6 pelikula ikus ditzakete haurrek euskaraz. Gainerako guztia, helduentzako zinea nahiz Leitzatik kanpoko zine emanaldi gehienak, gaztelaniazkoa izaten da, oso gutxi baita euskaraz sortu edo euskarara ekartzen dena. Merkatuak agintzen du, eta euskarak eta euskaldunok nozitzen dugu horren ondorioa.

Aldizkariak: informatika, futbola, motorra, dekorazioa, prentsa arrosa,

txirindularitza, historia, sexua, mendia eta eskalada, telebista, argazkigintza... Gai horien inguruko makina bat aldizkari daude merkatuan, dendetan alegia, edota liburutegietan. Denak gaztelania hutsezkoak. Euskarazko aldizkari espezializaturik ez, aipatutako gai horien inguruan. Baditugu euskarazko zenbait aldizkari, baina informazio orokorrekoak edo oso gai jakinei lotutakoak dira.

Ez dago askoz gehiago azaldu beharrik erdarazko produktuen nagusitasuna handia eta oso desorekatua dela erakusteko. Begi bistakoa da. Baina panorama horren aurrean, ilun samarra dela aitortu beharko dugun arren, euskarazko produktuak "kontsumitzeko" deia egin nahi dugu. Alegia, egon badauden euskarazko aldizkariak, liburuak, DVDak, CDak, jostailuak... erabili, irakurri, entzuteko deia.

Zertarako edo zergatik, ordea, kontsumitu euskaraz? Galdera era zabalago batean planteatu genezake: Zergatik egin euskaraz? Eta, ziur asko, bi galderari antzeko erantzuna emanen genieke. Alda liteke, jakina, pertsona batetik bestera. Guk erantzun posible bat edo beste ekarriko dugu hona, gehiago eta oso bestelakoak ere izan litezkeela badakigun arren:

Gure hizkuntza euskara dela sentitzen dugulako, eta hizkuntza horretan normal-normal bizi nahi dugulako, espainolak Madrilen egiten duen bezala, edo alemanak Berlingen. Ez gehiago, eta ez gutxiago.

Edo, praktikoago jarrita: euskaraz hobeki moldatzen garelako eta erosoago sentitzen garelako, errazago egiten zaigulako. Gure herriotako hiztun asko hobeki moldatzen da euskaraz gaztelaniaz baino, eta, besteak beste, horregatik nahiago du euskarazko produktuak kontsumitu. Haurren kasuan nahikoa ebidentea da, baina ez bakarrik haurren kasuan.

Orokorrean, gutako asko hobeki sentitzen da euskarazko produktuak kontsumitzen. Eta hobeki sentitzeko arrazoiak askotarikoak izan litezke: norberaren identitate euskaldunarekin bat datorrelako; hizkuntza eskubidea dela iruditzen zaiolako; euskara hurbilago sentitzen duelako; euskara praktikatu edo hobetu nahi duelako; hobeki ulertzen duelako; hobeki egiten duelako; tradizioarekin bat egiten duela sentitzen duelako; arrazoi politikoenegatik; euskara indartsu ikusi nahi duelako...

Horiek norberaren arrazoiak edo arrazoi partikularrak izan litezke. Horiez

gain, nolana ere, euskarak berak, edo euskararen berreskurapenak eta normalizazioak, euskarazko produktuak sortzea eta zabaltzea eskatzen dute. Hizkuntzen arteko nolabaiteko lehia badagoela begi bistakoa da, eta, lehia horretan, bietako bat jaun eta jabe baldin bada kulturako eta aisialdiko produktuetan, errazago nagusituko da hiztunen arteko erabileran. Hizkuntza praktikoagoa izanen da, eta estimatua- goa.

Izan ere, kultura eta aisialdia gauza atseginak izaten ohi dira. Gure aisialdiko une atseginak, edo horietako asko, gaztelaniaren bitartez asetzen baditugu, gaztelaniarekiko beharra, mendekotasuna eta lotura indartu egingen da, eta euskararekikoa ahuldu. Asoziazioak sortzen ditugu, kontzienteak edo inkontzienteak; eta baita gure umee ere, esate baterako. Joera horiek, hemen eta toki guztietan, hizkuntza gutxituen aurka jotzen dute.

Jakina, pelikula bat gaztelaniaz ikusteagatik ez da deus gertatzen, ezta erdarazko aldizkari bat jasotzeagatik ere. Denok egiten dugu hori, eta ez zaigu horregatik pikorrik aterako. Kontua da, hori egin arren, komeni dela eta beharrezkoa dela euskarazko produktuen eta euskarazko aisialdiaren kontsumoa sustatzea eta indartzea, lehen aipatu ditugun arrazoiengatik. Horrek bakarrik ez du euskararen egoera eskasa konponduko, baina konponbidearen zatitxo bat izan liteke. Alegia, beste hizkuntza batzuetan ere kontsumitzeari uko egin gabe, gure aukerak indartu beharko genituzke.

Bilatuz gero, artikulua hasieran azaldu dugun panorama ilun horretan, badago zer edo zer. Adibide bat jarriko dugu: erdarazko marrazki bizidunen zaparradak badauka alternatiba bat, ETBko marrazkiez gainera. Interneten badaude, eskuragarri, euskarazko marrazki bizidunak, <http://marrazkiak.zxq.net> helbidean: Doraemon, Hartz



Txiki, Hirukiak, Heidi, Pippi, Tintin, Hello Kitty... Ahalegintxo bat eginda, beraz, badugu erdarazko marrazkien erauntsiari aurre egiteko aukera.

Euskarazko aldizkariak, liburuak, DVDak, CDak, jostailuak, programa informatikoak, ikasmaterialak... eta era guztietako produktuak bilatzera animatu nahi zaitugu, irakurle, eta horretan lagunduko dizun baliabide jakin bat aurkeztuko dizugu jarraian.

EUSKARAZKO PRODUKTUEN KATALOGOA

Izenak dioen bezala, Euskarazko Produktuen Katalogoak merkatuan euskaraz aurkitu ditzakegun hainbat produktu biltzen ditu, eta gurasoentzako eta 16 urte bitarteko haur eta gazteentzako ehunka erreferentzia jasotzen da bertan. Merkatuan dauden produktuen artean hautaketa bat egiten da, berritasuna, egokitasuna eta kalitatea kontuan hartuta. Eta produktu horiek guztiak zortzi ataletan sailkatuta jasotzen dira: musika, liburuak, aldizkariak, filmak, jostailu eta jokoak, DVD eta informatika produktuak, komikiak eta gurasoentzako produktuak. Gainera, produktu bakoitzaren gutxi gorabeherako prezioa ematen da, eta zenbait ataletan adinaren arabera banaketa egiten da.

Horretaz gain, www.katalogoa.org webgunean, paperean jasotako produktuez gain, merkatuan dauden beste asko ere agertzen dira. Produktuaren gainean klik eginez, argitaletxearen denda bir-

tualera iristen da, nahi izatera hautatutako produktua etxetik erosteko. Urte osoan zehar bizirik eta eguneratua dagoen gunea da, argitaletxeek berek aukera baitute produktu berriak merkaturatu ahala webgunean sartzeko eta deskatalogatuta gelditu direnak kentzeko. Hartara, Euskarazko Produktuen Katalogoaren webgunea urte osoan kontsulta daiteke, eta irakurleek beren iruzkinak eta komentarioak egin ahal izango dituzte bertan, irakurri, ikusi, entzun edota jostatzeko hautatu duten produktuaren inguruan.

Euskarazko Produktuen Katalogoak 12 urteko ibilbidea osatu du dagoeneko. Nafarroako udal gutxi batzuek abiatu zuten ekimena, eta 135 toki-entitate dira gaur egun parte hartzen dutenak, 200 udaletik gora guztira. Paperezko edizioari dagokionez, aurrean 200.000 ale inguru banatuko dira Euskal Herri osoan.

Euskal Herriko lurralde eta ezaugarri oso ezberdineko hainbat herritako udalek egin dute bat euskarazko produktuak sustatzeko ekimen honetan: handiak nahiz txikiak; euskaldun kopuru altuko nahiz baxukoak; kostaldekoak, erriberakoak, errioxakoak edo mendialdekoak... Guztiok ere argi ikusi dute euskarazko produktuak erdaren itsasoan nabarmendu behar direla, eta egon badauen hori erdarazko produktuen itzalek argitara ekarri behar dela. Hortik aurrera, norberaren esku ahalegina eta erabakia.

Letrak atsegin

Atsegin lortzeko makina bat modu daude, jakina, eta horietako bat irakurtzea da. Ez du bitarteko handirik eskatzen, bakarka egin daiteke eta hala egin ohi da, eta edozein momentutan eta tokitan egin liteke gainera. Eta zer irakurri? Bada, nork bere gustuak eta zaletasunak izaten ditu, eta horren ariora erabakiko du. Baina denetarik izaten dugu aukeran, baita euskaraz ere.

Guk zenbait leitzarri gustuko pare bat liburu aipatzeko eskatu diegu, baita horiek hautatzeko arrazoiak zein diren azaltzeko ere. Euskarazko irakurgaiak dituzu, eta, ziur gaude, zure gustukoak ere aurkituko dituzu tartean.

JUAN MARI BARRIOLA

Liburua: *Gernikako seme-alabak.*

Egilea: Euskal memoria.

Liburua hautatzeko arrazoiak: batzuk ezkutatu nahiko lituzketen istorioak adierazten ditu, eta gure herrian izandako jazarpen gogorra modu gordinean azaltzen du.

Liburua: *Leitzako errege erreginak.*

Egilea: Patziku

Perurena.

Liburua hautatzeko arrazoiak: Leitzako majina bat istorio eta kontu biltzen ditu. Denbora aurrera pasa ahala altxor handiagoa izanen da.

MAMEN UHARTE

Liburua: *Amaren eskuak.*

Egilea: Karmele Jaio.

Liburua hautatzeko arrazoiak: liburu ederra eta hunkigarrie da, eta gaiñe-

ra oso errex irakurtzen da. Batez ere gustatu zait nola azaldu duen belaunaldi ezberdineko bi emakumek azken fiñen arazo eta kezka berdintsuak dituela, eta aldi beren zeinen ezezagunak izan daittezen ondoan dittugun pertsonak.

Liburua: *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian.*

Egilea: Bernardo Atxaga.

Liburua hautatzeko arrazoiak: errex leittu ditteke, gaztetzat aproposa, beño edozein adiñekoentzat ere bai. Kontakizun xelebrea da, pertsonaiak mattegarrik die, eta berezie da hizkuntza nola erabiltzen duen.

ZURIÑE ODRIOZOLA

Liburua: *Larrua Hotz.*

Egilea: Albert Sanchez Piñol.

Liburua hautatzeko arrazoiak: Liburu hau oso gustora irakurri nuen. Argumentua oso originala iruditu zitzaidan.

Idazleak, arriskuaren aurrean gizakiaren portaera nolako izan daitekeen ongi azaltzen du eta badauki intriga eta tentsioa bukaeraraino mantentzen.

Liburua: *Euskal aztarna*

Argentinan.

Egilea: Eusko

Jaurlaritza eta

Argentinako

Hezkuntza, Zientzia

eta Teknologia Ministerioa.

Liburua hautatzeko arrazoiak: interesgarria iruditu zitzaidan. Modu arinean datu asko ematen ditu. Zein izan ziren Argentinara emigratzeko arrazoiak,

bidaiak nolakoak ziren, lanbideak, ego-kitze prozesua eta abar.

MARKEL AZKARGORTA

Liburua: *Hautsi da katea.*

Egilea: Toti Martinez de Lezea

Liburua hautatzeko arrazoiak: Totik normalean sorkuntzarako gaztelera erabili izan du, baina liburu hau euskaraz sortu zuen gero gaztelera bazuten ere. Istorioa Frantziar iraultzako garaietan kokatzen da. Garai historiko eta nahasi horrek Sara eta antzeko herrixketan izandako eragina kontatzen du Totik. Erabiltzen duen euskaran, iparraldeko formak sartzen ditu eta horrek irakurketa bereziago egiten du. Historia ofizialean azaltzen ez diren Euskal Herriko gertakizunak kontatzen dituelako da niretzat berezia liburu hau.

Liburua: *Ganbarako loreak.*

Egilea: V.C. Andrews.

Liburua hautatzeko arrazoiak: liburu honetan kontatzen den istorioa oso gogorra da. Ama batek bere 4 seme-alabei diruagatik uko egin eta amonaren etxeko ganbaran bizitzera kondenatuko dituzte haur horiek. Hala ere, 4 anai-arrebek bizitzari aurre egin eta kolorea jartzeko ahaleginak egiten dituzte, beraien arteko harremana geroz eta estuagoa egiten doan heinean. Berezia egin zitzaidan, nolako erraz sartu nintzen istorioan, pertsonaien sentipenak neure egiteraino.

AINHOA VIGERA

Liburua: *Kolosala izango da.*

Egilea: Joseba Sarrionaindia.

Liburua hautatzeko arrazoiak: umeek gerra bizitzeko duten ikuspuntu berezia azaltzen du. Alemaniatik ailegatzea



espero duten zirkoa kolosala da. Liburuaren azkeneko orriak beste liburu askok baino gehiago merezi du.

Liburua: *Mariziprintek ez du zorioneko galeperrik nahi.*

Egilea: Nunila Lopez Salamero.

Liburua hautatzeko arrazoiak: ipuin tradizionalak hankaz gora jarri eta rolak guztiz aldatzen ditu. Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna lortzeko beharrezko ikuspuntu batzuk lantzen ditu.

FERNANDO OIARTZUN

Liburua: *Txantxangorri kantaria.*

Egilea: Salvador Zapirain, "Ataño".

Liburua hautatzeko arrazoiak: belarrikako gozamen iturria da, irakurtzen ari zarenean entzun egiten baituzu idazleak idatzitakoa. Idatzirik izan arren ahoz, hizketan, eginga dagoela dirudi eta. Hikako moldean eginiko liburu gozoa da, hasi eta buka hizketan, txukun eta garbi. Horrelakorik ez da apenas. Irakurtzeko erraza da eta idazleak oso euskara aberatsa darabil, gure aurreko belaunaldiko idazle batek eginga izaki.

Liburua: *Behi euskaldun baten memoriak.*

Egilea: Bernardo Atxaga.

Liburua hautatzeko arrazoiak: liburu atsegingarri eta gozagarria. Irakurtzeko erraza eta polita. Irakurtzeko garaian ongi pasatzen da, libertigarria baita. Literatura dario liburuari, betebetekoa; literatura hizki handitan. Beta izanez gero, behin baino gehiagotan irakurtzeko modukoa da.

JAIONE ASTIBIA

Liburua: *Garoa.*

Egilea: Txomin Agirre.

Liburua hautatzeko arrazoiak: irakurri nuen lehendabiziko liburu luze

samarra izan zelako, noski, eskolan agindutakoa; baina asko gustatu zitzaidana orduan. Euskaldun zuzen eta hitzekoaren estereotipo guztien ispilu eta eredu izan litekeen Joanes artzaina protagonista duena. Euskal literaturan klasiko bat den liburu bat aukeratzea ere egokia iruditu zait; eta klasikoaren artean irakurterazagoa den bat, Axularren bat baino. Errazetik hasi eta zailagoetara bidea irekiz.

Liburua: *Moroak gara behelaino artean?*

Egilea: Joseba Sarrionandia.

Liburua hautatzeko arrazoiak: Sarriren edo-

zein aukera nezakeen, bere lehendabiziko *Narrazioak* hartatik hasita... Durangoko azokarako noiz argitaratuko zain egoten nintzen, misterio ikutua zuen eta du niretzat bere bizimoduezkutukoak eta miretsi egiten dut, arlo orotan. Eta bere idazkera oso oso gogoko dut. Bere azken liburua, argitaratu bezain laister erosi nuena hau ere. Eta sekulako lana egin du! Artxibokoa, bilketa, antolaketa, lotura, aurkezpena... Eta hain zuzen ere, *Garoako* euskaldun odol-garbiari aurrez aurre jartzen zaion benetako euskaldunaren defentsa-edo egin du. Lan mardul bezain "zientifikoa" iduritzen zait. Eta geroztik, orain berriro, sari polemiko hori eman diote.

JOSUNE MARZOL

Liburua: *Joanak joan.*

Egilea: Jon Etxaide.

Liburua hautatzeko arrazoiak: Liburu hau duela 20 bat urte irakurri nuen eta bertan Pierre Topet "Etxaun"en

bitzita kontaktzen du. Hain bizimodu gogorra izan zuenez gizon honek, benetan hunkitu ninduen, eta nik uste hori dela eta, izugarri gustora irakurri nuela, gainera jakinda biografia bat dela ere interesgarriagoa egin zitzaidan.

Liburua: *Bilbo-New York-Bilbo.*

Egilea: Kirmen Uribe.

Liburua hautatzeko arrazoiak: liburu hau duela urte bat irakurri nuen eta benetan gustatu zitzaidan. Batez ere Kirmenen idazteko moduarengatik. Esaldi sinpleak eta motzak egiten ditu eta horrek asko errazten du irakurtzea. Istorioa ere interesgarria da.

JOSE LUIS UHARTE

Liburua: *Leitzako Errege Erreginak.*

Egilea: Patziku Perurena.

Liburua hautatzeko arrazoiak: bertako ahoz ahoko galtzeak daukagun tradizioaren zati bat jasotzen du, hiztunen beraien etorria eta hainbat kanta, kontu, bertso eta pasadizo erakutsiz modu gozagarrian, bertako hizkuntza xaloan, ia bukatua eta galduta dagoen bizimodu bat jasoaz eta erakutsiz. Altxor bat da, gehienbat bertakoentzat baina baita beste edozeinek gozatzeko modukoa ere.

Liburua: *Soinujolearen semea.*

Egilea: Bernardo Atxaga.

Liburua hautatzeko arrazoiak: nobela ederra. Gustura irakurtzen dena, tira egiteko hari mutur asko dituena. Azken hamarkadako gure inguruko jendeak eta giroak ederki islatzen dituena. Eta dena

Atxagaren maisutasuna eta hizkera bikainekin, bere liburu guztiak duten bere "zera" horrekin, bere mundu partikularrean... Irakurritz gozatzeko moduko liburu bat!



Herrien arteko lankidetzan

ESKUALDEKO ERAKUNDEAK

Herriarroi zerbitzuak jasotzea gustatzen zaigu, eta badugu horretarako eskubidea gainera. Administrazioak badu, horrenbestez, zerbitzu horiek, edo horietako batzuk behintzat, eskaintzeko betebeharra. Nafarroako Gobernuaren ardura da zenbait zerbitzu ematea, osasun zerbitzua esate baterako, eta udalen esku dago beste hainbat zerbitzu ematea edo hainbat gai kudeatzea.

Herri txikietan, ordea, nahi baino zailago gertatzen da askotan gai eta zerbitzu horiei aurre egitea, baliabide faltagatik batez ere, edo herri txiki batek berak bakarrik ezin diolako eutsi. Horrelakoetan, zerbitzuak partekatzea eta elkarrekin ematea izan ohi da konponbidea.

Gure eskualdean badakigu horretaz zer edo zer, dezente baitira ingu-

ruko herriein batera antolatzen eta eskaintzen diren zerbitzuak, dezente baitira elkarrekin lantzen ditugun gaiak.

Hori horrela egiteak, jakina, antolakuntza lan handia eskatzen du, eta normalean egitura edo erakunde bereziak sortzen dira horretarako: mankomunitateak, partzuergoak, hitzarmenak...

Erreportaje honetan horren berri emanen dizuegu. Leitzako Udalak zenbait gai inguruko herriein batera kudeatzen eta antolatzen ditu, eta zenbait erakunde komunetan eta bilgunetan parte hartzen du. Banan-banan aurkeztuko ditugu, labur bada ere. Informazio gehiago behar duenak, horietako bakoitzera jo dezake zuzenean, eta hantxe eskuratuko du hemen esanen dugun guz-

tian sakontzeko behar beste informazio.

EUSKARA MANKOMUNITATEA

Euskara gure eskualdeko hizkuntza propioa da, bertakoa. Horretaz gain, legeak hala aitortuta, hizkuntza ofiziala ere bada. Horri gehitzen baldin badiogu gure herrietako herriarren artean euskararekiko atxikimendua handia eta indartsua dela, bistakoa da herri erakundeek ere, gure eskualdeko udalek alegia, euskararen aldeko konpromisoarekin eta borondatearekin bat egin behar dutela.

Konpromiso horren emaitza da, hain zuzen ere, Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea. Herri erakunde hori da euskararen normalizazioan esku hartzeko eta hizkuntza politika espezifikoak egiteko udalek sortutako bitartekoa. Leitzako Udalak, beraz, euskararen inguruko gaiak Euskara Mankomunitatearen bidez kudeatzen eta lantzen ditu, eta, zehazki, euskara zerbitzuaren bitartez.

Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateak 13 udalerrri biltzen ditu bere baitan, eta herri horiek hiru eskualdetan banatzen dira. Guztira 74 herri elkartzen dira Mankomunitatean. Honakoak dira 13 udalerrriak: Anue, Araitz, Arano, Areso, Basaburua, Betelu, Goizueta, Imotz, Larraun, Leiza, Lekunberri, Odietta eta Ultzama.





UEMA

UEMA Udalak Euskaldunen Mankomunitatea da. Erakunde honek, artikulu honetan aztertzen ari garen besteak ez bezala, gure eskualdeko esparrua gainditzen du, eta Euskal Herri osokoa da. Leitzako Udala bertako partaide da 1994. urteaz geroztik.



Izenak aski argi uzten du zein den mankomunitate honen funtsa. Euskal Herriko hainbat udalari euskaldun elkartzeko, euskararen lurraldea osatuz joateko eta herri horietan euskaraz bizitzeko urratsak egiteko. Gure eskualdean bertan ere baditugu UEMAko kide diren beste herri batzuk: Areso, Goizueta, Larraun, Araitz eta Basaburua.

www.uma.org

GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

Gizarte zerbitzuen kudeaketa ere udalen esku dago gure eskualdean, eta horretarako eratu zen Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea. Herritarren eguneroko hainbat beharri erantzuteko arduradauka gizarte zerbitzuak, eta herriko hainbat adin-talde, sektore eta kolektiborekin egiten du lana: haurrak, gazteak, helduak, adinekoak, etorkinak, laguntza berezia behar dutenak... Egiteko ugari dauzka gizarte zerbitzuak,

beraz, baina 4 programatan bildu daitezke:

- Harrera eta orientabide sozialerako programa, populazio osoari zuzendua, gizarte zerbitzuetan eskaerak aurkezten dituzten pertsonen esku-hartze soziala emateko. Doakoa izan da.
- Autonomia pertsonala sustatu eta menpekotasuna duten pertsonen laguntzeko programa, menpekotasuna duten pertsonen haien ohiko ingurunean ahal den luzaroen gelditzea ahalbidetzeko xedea duena. Programa hori menpekotasuna ez dutenei ere zuzendu ahalko zaie, helburua beste programa batzuen bitartez lortzerik ez dagoenean.
- Oinarrizko laguntzako gizarteratze programa, gizartean, edozein esparrutan, bazterturik edo baztertzeko arriskuan daudenak gizarteratzen laguntzeko xedea duena.
- Oinarrizko laguntzako haur eta familientzako laguntza programa, adingabekoei haien garapen pertsonalerako bide emanen dien ingurunea ziurtatzeko, babesa eta laguntza pertsonala, familiarra eta soziala emateko tresnen bidez.

Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea honako udalek osatzen dute: Leitza, Goizueta, Areso eta Arano.



MENDIALDEA MANKOMUNITATEA

Hondakin ugari sortzen dugula bistakoa da, eta baita hondakin horiekin zer edo zer egin behar dela ere. Bestalde, hondakinen tratamenduaren gaineko kontzientzia gero eta handiagoa da erakundeen eta herritarren artean, eta gai horri erantzun beharra ere udalenzako erronka garrantzitsua da. Horregatik sortu da, besteak beste, Mendialdea Mankomunitatea, eskualdeko hiri-hondakinen bilketaz eta kudeaketaz arduratzeko.

Ez da hori, nolana ere, egiten duen gauza bakarra; herritarren artean konpostea egiteko ohitura indartzeko informazioa eta formazioa ere landu ditu, esate baterako.

Mendialdeko Mankomunitatean gure eskualdeko 6 udal elkartzeko dira: Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Larraun eta Lekunberriko udalak, hain zuzen ere.

PLAZAOLA PARTZUERGOA

Turismoa aspaldi indarrean dagoen ohitura da. Gure herriotatik jende asko joaten da hamaika tokitara, hurbileko nahiz urrutiko bazterrak ezagutzera. Baina kanpotik gurera ere etortzen dira, gero eta gehiago gainera, eta hori ere kudeatu eta landu beharreko gaia da: etortzen den turismo hori bideratu





tzeko, esate baterako, baina baita turismo hori bera indartzeko ere, gure herri hauen garapenerako irtenbide gisa.

Turismoaren inguruko gaiak kudeatzeko Plazaola Turismo Partzuergoa sortu zen eskualdean, eta bera da herri guztien tresna edo bitartekari gisa gaia kudeatzen duena. Interesguneak sortu edota mantentzen laguntzen du, horiek zaindu eta egokitzeko; bidexkak sortu eta mantentzen ditu (PR izeneko ibili motzekoak, Plazaolaren trenbide zaharra...); bazkideen formazioaz ardurtzen da; kultur jarduerak prestatzen ditu; erakusketa telematikoak antolatzen ditu; argitalpen lanak egiten ditu gure kultura, natura eta historia azaltzeko eta bultzatzeko...

Plazaola partzuergoak, Mankomunitateek ez bezala, toki-entitateez gainera (udalak eta kontzejuak), elkarre pribatuak ere biltzen ditu, ostalaritzakoak eta artisaauak esate baterako. Udalei dagokionez, honakoak dira partzuergoan sartuta daudenak: Leitza, Larraun, Lekunberri, Areso eta Imozko Udalak.

www.plazaola.org

CEDERNA-GARALUR

Cederna-Garalur Elkartea irabazi asmorik gabeko erakunde bat da, Nafarroako Mendialdearen garapen ekonomiko eta soziala sustatzeko sortua. Hauek

dira elkartearen helburuak, haren webgunetik hitzez hitz hartuak:

- Nafarroako Mendialdearen garapena ekarriko duten proiektu berritzaileak eta esperimentalak garatzea.
- Kalitateko turismo-xedea garatzea.
- Teknologia Berrien erabilpena lurraldera hurbiltzea, hobetzea eta sustatzea.
- Lurraldean komunikazioa hobetzea.

Cederna-Garalur elkartea 109 elkarrekide osatzen dute. Nafarroako mendialdeko bazkide publikoak eta pribatuak daude tartean: udalak, enpresa-erakundeak, sindikatuak, nekazaritzako erakunde profesionalak, kultura-, kirol- eta landa-turismoko erakundeak, finantza-erakundeak, eta bestelako erakunde laguntzaileak. Leitzako Udalez gainera, hauek dira Cederna-Garalurren dauden udalak: Atez, Araitz, Areso, Basaburua, Betelu, Goizueta, Imotz, Larraun, Lekunberri eta Ultzama.

www.cederna.eu

ARALAR MUSIKA ESKOLA

Musikarako zaletasuna handia da Leitzaan, eta musika tresnaren bat jotzen duen edo kantuan aritzen den haur eta gazte asko dugu gurean. Ez denak, akaso, baina horietako asko Aralar musika eskolatik pasa dira, eta bertan eman dituzte lehen-dabiziko urratsak musikaren munduan.

Aralar musika eskolaren antolaketa gure inguruko errealiterata eta egoera geografikora egokitu da. Antolaketa nagusia Lekunberri egiten da eta irakasleak eskualdeko herri horietara gutzietara joaten dira eskolak ematera.

Aralar musika eskolak eskualdeko zenbait udalen babesu dauka. Leitzako Udalarena, esaterako, eta Leitzakoaz gain Araitz, Basaburua, Betelu, Goizueta, Larraun, Lekunberri eta Ultzamako Udalena.

ONDORIOAK

Ikusten den moduan, dezente dira eskualdeko gainerako herriekin lankidetzan ematen diren zerbitzuak. Eta, ikusten denez, gaur egungo antolaketa konplexu samarra da, gai bakoitzerako elkartzen den udal eta herri multzoa ezberdina delako. Aipatu ditugun zazpi elkarre edo egitura komun horiek hartuta, ez daude bi osaera berdina izanen dutenak. Denak ezberdinak dira. Hori, jakina, hainbat urtetan emandako urratsen ondorioa da, erakunde edo elkarre bakoitza une jakin batean sortu zelako, eta une horietako bakoitzean herri bakoitzak bere beharrak eta interesak izanen zituelako. Antolaketa konplexu hori ordenatzeko eta antolatzekeo beharra edo komenigarritasuna hortxe dago, baina baita hori egiteko ageriko zailtasuna ere.

LETRA ZOPAK

Letra-zopa honetan, Leitzako 8 mendiren izenak aurkitu behar dituzu:

A	F	T	U	M	L	I	I	L	E	F	A	P	A
P	E	T	R	I	K	E	T	A	D	I	L	N	S
O	R	B	E	U	H	K	A	D	I	Z	T	P	E
S	A	A	P	I	G	A	L	U	T	U	Z	I	Z
A	S	O	E	K	E	B	E	B	Z	I	E	U	T
L	Z	A	L	T	Z	A	R	I	T	Z	G	Z	E
I	T	S	G	O	S	N	O	U	M	A	I	E	T
E	A	O	U	S	E	Z	A	Z	I	Z	E	K	S
S	R	L	K	A	Z	T	I	T	F	T	A	Z	U
B	U	U	I	L	S	I	R	A	O	I	B	I	X
E	G	S	I	L	D	E	A	I	M	A	R	R	A
Z	I	R	O	I	P	A	Z	N	A	O	I	U	G

DATUAK LOTU

13 udalerrik osatzen dute Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea. Zenbat biztanle dauzka udalerrri bakoitzak?

a) Anue	1) 277
b) Araitz	2) 339
c) Arano	3) 576
d) Areso	4) 2.920
e) Basaburua	5) 358
f) Betelu	6) 780
g) Goizueta	7) 134
h) Imotz	8) 878
i) Larraun	9) 444
j) Leitza	10) 999
k) Lekunberri	11) 345
l) Odieta	12) 1.694
m) Ultzama	13) 1.432

ASMAKIZUNAK

(iturria: <http://www.zernola.net>)

- Hegaztien denda bateko dendariak hau esan zion loroa erosi zuenari: "loro honek entzuten duen guztia errepikatzen du". Astebetara, eroslea itzuli eta loroak hitz-erdirik ere ez duela esan kexatu zaio, baina dendariak esan dio ez ziola gezurrik esan. Nola liteke?
- Gauean, osaba irakurtzen ari zela, izebak argia itzali du. Gela erabat ilun geratu da, baina osabak irakurtzen jarraitu du, ezer gertatu ez balitz bezala. Nola liteke?
- Tren elektriko bat Altsasutik Iruna doa 100 km/h abiaduran. Haizeak iparretik jotzen du 30 km/h abiaduran. Norantz joango da kea?
- Lagun bakarrak ordubete behar badu zulo bat egiteko, eta bi lagunek bi ordu behar badituzte bi zulo egiteko, zenbat denbora beharko du lagun bakarrak zulo-erdia egiteko?

ASMAKIZUNAK: 1.- Loroa gorra da, edo erosi zuena mutua; 2.- Osaba itsua da, eta Braille sistema ari zen irakurtzen; edo izebak beste gelaren bateko argia itzali zuen; 3.- Tren elektrikoak ez dute kerik botatzen; 4.- Ezingo du zulo erdia egin, zulo erdirik ezin baita egin. Zuloak handiak edo txikiak dira, baina ez dago zulo-erdirik.

DATUAK LOTU: a-5; b-3; c-7; d-1; e-8; f-2; g-6; h-9; i-10; j-4; k-13; l-11; m-12

LETRA ZOPA: Mendien izenak: Altzegi, Aritz, Arramita, Axuste, Bizutain, Guratz, Petrikea, Urpel.

SOLUZIOAK

Euskal jolasak

Erleta ikastetxean

Euskara da Leitzako hizkuntza, eta baita Erleta Ikastetxekoa ere. Eta hala izatea nahi dugu, bai eskolako orduetan, bai jolasten ari garenean ere. Izan ere, euskaraz jolastea ere atsegina da, eta garrantzitsua guretzat eta gure hizkuntzarentzat.

Erleta ikastetxean, euskal jolasen tailerra egin dute. Horretarako, adinez adin antolatutako jokoak

ikasi dituzte eta urtean zehar ikasiz joan dira; besteak beste: korruan, harrapaketan, zabuan, soka-saltoan ibiltzekoak...

Oso jarduera egokiak izan dira, eta emaitzak ere ezin hobek. MARMARira ekartzeko jolas horietako hiru aukeratu ditugu, denok ezagutu ditza-zuen.



MARI TXIPI

ADINA:

4 urtetik aurrera

JOLAS MOTA:

korroan

AZALPENA:

Guztiak borobil batean jarriko dira, eta txaloak joaz edota eskuak gerrian dituztela, alde batera eta bestera mugituko dira musikaren doinuarekin, tokitik mugitu gabe. Erdian bat egonen da borobilean dantzatzen. Kantaren "Mari txipi dantzatzen" zatira iristean, erdikoa norbaiten aurrean jarriko da, eta biak hasiko dira besoekin eta gorputzarekin dantza berezi bat egiten. Ondoren, besotik hartuta biak hasiko dira borobilean dantzatzen, eta hauek beste bikotekide berria aurkitu beharko dute; "Mari Txipi dantzatzen" esatean, berriro aurreko dantza errepikatuko dute. Horrela jarraituko dute borobileko haur guztiak dantzari arte.

ABESTIAREN LETRA:

Kalean nindoala
 Mari Txipi ikusi nuen
 Eta erakutsi zidan
 Mari Txipi dantzatzen
 Dantza txipi txipi
 Dantza txipi txi
 Dantza txipi txipi
 Eta dantzatu ongi.



DON DON KANDEL

ADINA:

4 urtetik aurrera

JOLAS MOTA:

zozketa egiten

AZALPENA:

Aukeratzea zaila egiten denean, zozketak egiteko kanta da.

Umeak borobil batean jarriko dira bata bestearen ondoan eta batek, erdian jarrita, abestiari jarraituz aukeratuko du.

ABESTIAREN LETRA:

Don don kandel
Nika nika moskatel
Zerradura, klabadura
Txin txiri plata
Txiri biri arka

Arka txipiton
Delapon
Zakur zahar baten
hiru gizon!

DON MAKARRON

ADINA:

4 urtetik aurrera

JOLAS MOTA:

Esku-jolasa



AZALPENA:

Borobil batean jartzen dira.

Eskuineko eskua ondokoaren ezkerren gainean jartzen da, eta bat hasten da jotzen. Abestiaren bukaeran azken kolpea jaso behar duenak eskua kentzen badu, jolea kanporatzen da. Baina joleak bestearen eskua jotzea lortzen badu, azken hau izanen da kanporatua.

ABESTIAREN LETRA:

Don makarron txispero
Ala maue
Oteo oteo, ti, ti, ti
Oteo oteo, ti, ti, ti
Don makarron

zer diozu?

eta zuk,

Nahikari Uriarte



- Ametsak nola egiten dituzu, koloretan edo txuri-beltzean? Koloretan. Bueno, hala ustet...
- Gauean esnatuz gero, eta ametsa gustukoa bada, lortzen al duzu berriz horrekin jarraitzea? Ez, sekule ez dot lortu. Baño gutxitan saiatu naiz. Normalen ez bai naiz gabetan esnatzen.
- Eta, amesgaiztoa baldin bada, horrekin ez jarraitzea? Bai, ametsa izan dela ohartu ta gero asko relajatzen naiz ta espezial lo ittet.
- Esnatu ondoren, amets egiten jarraitzen duen horietako al zara? Bai, asko gañea. Bestela amets bat bakarrik e etzen egi bihurtuko.
- Ametsekin jarraituz, aukeratu mesedez zure herrirako, Leitzarako, amets bat: Herri bizi ta aktiboa izaten seitzea nahi nuke. Talde, elkarte eta gai desberdiñetan inplikaturik dauden biztanlekin. Aurrera, kultur taldea, gaztetea...
- Zer izanen litzateke, Leitzarako, amesgaiztoa? Epe motzen biñipin, tentsio haundiko linea elektrikoa.
- Eta Leitza ekarri dugunez, herriari buruzko galdera sortatxoa: saiatu al zara inoiz Interneten Leitzari buruz zer dagoen ikusten? Bai, behin baño gehiotan. Garai baten leitzar batek ateratako argazki sorta ikusgarrie ikusi zitteken.
- Nola idazten duzu herriaren izena: Leitza, edo Leitze? Leitza baño leitzekoa naiz.
- Eta nola esaten duzu? Leitze.
- Leitza izena nondit ote datorren pentsatu al duzu inoiz? Ba al duzu horren berririk? Bai, hoixe. Baño ez dauket oso argi.

Mikel Zabaleta



- Ametsak nola egiten dituzu, koloretan edo txuri-beltzean? Koloretan uste dot.
- Gauean esnatuz gero, eta ametsa gustukoa bada, lortzen al duzu berriz horrekin jarraitzea? Batzutan bai baño ez beti.
- Eta, amesgaiztoa baldin bada, horrekin ez jarraitzea? Bai, hori errexago, buruak lasaialdia hartzen du ametsa zela konturatzean.
- Esnatu ondoren, amets egiten jarraitzen duen horietako al zara? Amets asko egitun dot esnaturik eta egiten jarraituko dut, eta ahal direnak errealitate bihurtu.
- Ametsekin jarraituz, aukeratu mesedez zure herrirako, Leitzarako, amets bat: Gauzatu daitekeen amets eder bat denak euskaraz hitz egitea izanen zen.
- Zer izanen litzateke, Leitzarako, amesgaiztoa? Amets gaiztoa alderantziz, gure hizkuntza galtzea, edo ez galdutारे ez erabiltzea.
- Eta Leitza ekarri dugunez, herriari buruzko galdera sortatxoa: saiatu al zara inoiz Interneten Leitzari buruz zer dagoen ikusten? Noizbait bai, kuriositatez.
- Nola idazten duzu herriaren izena: Leitza, edo Leitze? Leitza.
- Eta nola esaten duzu? Herriaren izena Leitza, baño Leitzeko naizela esaten dot.
- Leitza izena nondit ote datorren pentsatu al duzu inoiz? Ba al duzu horren berririk? Badakit zuloa esan nahi dula eta egie esan nahiko zuloa da, baño oso leku politte, guretzat Leitzarrantzat behintzat.